

## 4. Irabazi iturriak

Canvas ereduko laugarren atal honetan, gure enpresako irabazi iturriak nondik lortuko ditugun azalduko dugu.

Argi dugu bezeroak direla gure irabazi iturria, horretarako kontuan izan behar dugu gure bezeroak zelan eta zenbatero ordainduko diguten.

Ordainketa errepikarien bidezko sarrerak izango ditugu. Ditugun haurren familiek, hile bakoitzean, kopuru zehatz bat ordaindu beharko dute, hilero ordaintzearen arazoia, denak ez direla denbora berdina egongo.

Ospitalean dauden denboraren arabera gure zerbitzua gehiago edo gutxiago erabiliko dute.

Enpresa sortzerako orduan, dirua lortu ahal izateko hainbat ekintza prestatzea pentsatu dugu; haien artean txapelketa solidario bat antolatzea erabaki dugu, horrela gure enpresa ezaguna izateko aukera izango dugu eta denon laguntzarekin, dirua lortuko dugu enpresa aurrera eramateko eta umeei laguntzeko.

2. eskuko azoka bat antolatzea ere pentsatu dugu, azken finean denok ditugulako etxean milaka gauza ez ditugunak erabiltzen eta beste pertsona batek erabili ahalko dituenak.

Liburu txiki bat sortzea ere erabaki dugu; liburu horretan umeekin egin ahal diren hainbat ekintza jarriko ditugu, liburu txiki hori salgai jarriko dugu.

Argi daukagu, nahiz eta dirua lortzeko burutuko ditugun ekintzak ondo atera, bankuari mailegu txiki bat eskatu beharko diogu, hasierako hilabeteetan diru nahikoa izateko.